

#AZTNUGAL Kultur Zikloaren Balorazioa

Otsailean torturaren kontra antolatu genuen #AZTNUGAL Kultur Zikloa. Gure hasierako asmoa argia zen: apirilean epaituko gaituztenez, prozesu juridiko horretan torturak izan duen pisua mahai gainean jartzea. Horretarako, torturaren gaia ikuspuntu desberdinetatik jorratu genuen, Joxe Arregiren heriotzaren 35. urteurrenaren bueltan.

Otsailaren 13a zehaztu genuen egun nagusi gisa. Goizean Condestable jauregian ospatutako konferentzian, arlo akademikoa eta juridikoa bateratzen saiatu ginen Paco Etxeberria, Jorge del Cura eta Lorea Bilbao gonbidatuz. Lehenengoa EAEko tortura kasuen bilketaz mintzatu zitzaigun, EHUko ikerketaren nondik norakoak azalduz: beste biek, torturarekin amaitzeko nazioartean dauden tresna juridiko eta politikoak aurkeztu zizkiguten. Konferentziaren deialdiak sekulako arrakasta izan zuen, aforo mugatua zela eta, hamarnaka pertsona sartu ezinik gelditu baitziren. Edukiari dagokionez ere oso argigarria izan zen bertan entzundako guztia.

Egun horretako #AztnugalRockII kontzertuak ere oso modu positiboan baloratzen ditugu. Gaueko 23:00etarako sarrera guztiak agortu ziren eta goizeko ordu txikiak arte giro onean igaro zen gaua. Harik eta hainbat borroken ondorioz uste baino lehentxeago amaitu bagenuen ere. Hala ere, lekuz kanpo zeuden gertaera horiei ez diegu utziko gau horretan zehar izan genuen sentrazio ona zapuzten.

Otsailaren 13ko ekitaldiez gain, bestelako eremuetatik ere hurbildu nahi izan genuen gaira. Horretarako Iruñeko Katakarak gunearekin batera hiru asteko ziklo bat antolatu genuen. Batetik, Eva Foresten hitzak abiapuntu hartuta, eraso konkretuez gain tortura ere baden beste guztia artistikoki landu zuten bertako sei artistek, hiru astez ikusgai egon den erakusketa sortuz. Bigarrenik, torturaren gaia kultur sormenetik landu duten Iñigo Gantzarain, Oihana Barrios eta Sergio Salinas mahai baten inguruan bildu genituen, tortura bezalako gai latzak jorratzeko dokumentalgintzak, zapalduaren antzerkiak eta kale antzerkiak eskaintzen dizkiguten tresnen inguruan hausnartzeko. Eta azkenik, torturak utz dezakeen trauma gainditzeko dugun gaitasunaren –erresilientziaren–, inguruan aritu ziren Jeannette Ruiz Goikotxeta eta Ainara Iraizoz Ciarra psikologoak Gorka Zabala eta Jon Patxi Arratibelekin batera.

Ziklo osoaren inguruko balorazio oso positiboa egiten dugu. Hasteko, torturaren gaia hilabete osoan zehar mahaiaren gainean izatea lortu dugula uste dugu. Gainera, ohikoagoa den ikuspegi politikoa gainditu eta bestelako begirada batzuk eskaintzea lortu dugula esan behar dugu. Azkenik, #AZTNUGAL hitzak berak uste genuena baino oihartzun handiagoa izan duela gaineratu nahi dugu. Izan ere, guk antolatutako ekitaldietan entzuteaz gain, herri eta auzo askotan ere torturaren aurkako oihu gisa erabili da.

Zorionak! Torturarekin amaitzeko bidean gaude!

Eskerrak:

Mila esker Katakarak, zuen etxeko atea irekitzeagatik eta emandako laguntza guztiagatik. Arazoen aurrean izandako prestutasunagatik eta jaso dugun tratuagatik. Eskerrak baita ere Condestable eta bere langileei.

Eskerrak Arte Erakusketa Kolektiboa egin zenuten sortzaileei. Lan bikaina burutu zenuten.

Mila esker hitzaldi desberdinetako gonbidatu guztiei: Paco Etxeberria, Jorge del Cura, Lorea Bilbao, Iñigo Gantzarain, Oihana Barrios, Sergio Salinas, Jeannette Ruiz Goikotxeta eta Ainara Iraizoz Ciarra.

Eskerrik asko A Zero zure ekarpenagatik, nolako lan azkarra eta profesionala!
Mila esker Imanol Oninart Atun^o, zu gabe gauza asko zailagoak izango ziren.

Eskerrik asko Aznugal Rock I antolatu zuten guztiei. Eskerrik asko Aznugal Rock II posible egin zutenei: Kontzertuaz gozatzerantz bertaratu zineten guztiei. Batez ere lanera etorri zinetenei... Oholtza gainean egon ziren MConak, Arkada Social, Kaotiko, Kop, Tximeleta eta Dj Jotaxori. Eta zuekin doazen langile fin horiei. Klick Sound langileei. Gertu Inprimategia, Samu, Prevención Ezkaba, Enrike Miranda, Mitxel Bikabi, Dya, Sotero eta langileak, Sergio eta langileak, Burlatako Udala eta langileak, Atarrabiako Udala eta langileak, Axular Elkartea, Askatasuna frontoiko langileak, Hatortxu Rock, Naiz, Euskalerrria Irratia, Herriko Taberna, Akelamendi, Bodegon, Garnatxa, Torrea, Leku ona...

Ziklo guztian zehar modu batera edo bestera parte hartu duzuen guztioi...

Bihotz bihotzez, eskerrik asko!

#AZTUGAL

**TORTURAREKIN AMAITZEKO
TO END TORTURE
PARA ACABAR CON LA TORTURA
GATAZKA POLITIKOA KONPONTZEKO
PARA RESOLVER EL CONFLICTO
EPAIKETA POLITIKORIK EZ!
¡NO A LOS JUICIOS POLÍTICOS!**